



Bi eskualdeetako uztaren fruituak Durangoko Azokan

ORDEZKARITZA ▶ Bertako idazleek, musikariek eta taldeek sortutako produktuen eskaintza zabala izango da aurten ere Euskal Liburu eta Disko Azokan; bihar zabalduko ditu ateak, 477 produktu berrirekin ▶ 2,3

ALKIZA ▶

Herriko historian atzera eginez

Pello Joxe Aranburu herritarra, gidari ▶ 6-7

Kirol Asteburuak utzitakoaz «balantze ona» egin du Udalak

ZIZURKIL ▶ 160 bat lagun aritu ziren IX. Gau Krosean; Oiartzabalen eta Vallejoren hitzaldia eta kirolariei omena ere, arrakastatsuak ▶ 4

ALEGIA ▶

Gaztetxea dagoeneko koskortu da, eta beti bezain indartsu eta bizirik segitzen du

18. urteurrena ospatzeko egitarau oparoa antolatu dute, bihar hasi eta urtarrilaren 8ra bitarte ▶ 5

HITZA



DURANGOKO AZOKA ▶

477 produktu berri aurten

Bihar hasiko da Durangoko 40. Euskal Liburu eta Disko Azoka; bada eskaintza bi eskualdeetatik ere

ERREDAKZIOA

Bihar zabalduko ditu atek Durangoko 40. Euskal Liburu eta Disko Azokak. Berrikuntzaz beterik eta inoiz baino erakusmahai gehiagorekin dator aurtengo edizioa. Beste behin, produktu horien guztien artean izango dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko idazleek eta musikariek ekoizitakoak.

Hain zuzen, bi eskualdeetako hamaika produktu aurkitu ahal izango dituzte herritarrek Durangon. Batzuk bakarrika sortutakoak, eta beste batzuk taldean egindakoak. Hori da, adibidez, Txalaparta argitaleak argitaratu duen *Adiskide maittea* liburuaren kasua. Hemezortzi idazleren lanekin osatutako liburua da, eta ho-



Bernardo Atxaga asteasurraren *Soinujolearen semea*-k arrakasta handia izan zuen Durangon. JOXEMI SAIZAR

rien artean da Arantxa Iturbe alegiarra. Liburuaren artean beste hainbat ere azpimarratu daitezke: Bernardo Atxaga asteasurraren *Lekuak*, Juan Kruz Igerabide adunarraren *Hauts bihurtu zineten*, Karlos Linazasoro tolosarraren *Denbora aleak*, Luis Mari Mujika lizartzarren *Ipar Euskal Herriko toponomia tipia*, Patxi Zabaleta leitzararren *Eneko Aritzaren hilobia*...

Baina ez dira liburuak bakarrik Durangoko azokan ikusi ahal izango direnak. Musika alorrean Jone abeslari anoetarrek ateratako bakarkako lana izango da, adibidez, eta Jabier Muguruzak musikatu dituen Juan Kruz Igerabideren olerkiak ere bai, *Nire gorputza* izeneko diskoan. Horrez gain, Pox-

ORDUTEGIA ETA EGITARUA ▶

ORDUTEGIA

Igandera arte. Egutero, 10:30etik 20:00etara zabalik.

BIHAR, ASTEAZKENA

Goizez. Sinadura. Urtzi Ihiza: *Euskararen jatorria aurkitua* liburua. Lemuria (Artekale, 58).
11:00. Kiki, Koko eta Moko pailazoan *Alaitu* emanaldia azokan.

12:00. *Baietz'etik Lauaxetara.* Euskal Herriko Unibertsitatearen ekitaldia azokako aretoan. EHUko errektore Juan Ignazio Perez Iglesia hizlari.

16:00. *Liburutegiak eta jabegotza intelektuala* eztabaida azokako aretoan: Patricia Riera, Patxi Presa, Jorge Jimenez, Xabier Mendiguren Elizegi, Arantza Arzamendi, Karmele Santa Maria (moderatzaillea).
19:00. Sarrera hitzaldia. Juan Mari Torrealda: *Zentsura frankistaren irakurketa gaurkotua.*

22:00. Rock kontzertua Plateurena kafe antzokian: Berri Txarrak eta Lor.
22:00. Pello Ramirezen musika emanaldia San Agustin kulturunean.

ETZI, OSTEGUNA

Goizez. Gozoki tailerra X. Euskal Dendan (Durangoko Merkatu plaza). Igandera arte zabalik: 11:00etatik 15:00etara eta 16:30etik 21:00etara.
Goizez. Sinadurak. Patxi

Zabaleta: *Eneko Aritzaren hilobia* liburua. Bitarte Banakuntza (Artekale, 65); *Arnaldo Otegi Bihar Euskal Herria* Iñaki Irujo eta Ramon Solak idatzitako elkarrizketa liburua. Gara egunkaria (Barrenkale, 36) eta Urtzi Ihiza: *Euskararen jatorria aurkitua* liburua. Lemuria (Artekale, 58).

11:00. Patxi Zabaletaren *Eneko Aritzaren hilobia* liburuaren aurkezpena.

12:00. X. Euskal Dendaren inaugurazio ekitaldia Merkatu plazan.

12:30. Hitzaldia: *Zentsura bertsolarizan edo kristalezko eskailera.* Xabier Paia.

13:00. Berto saioa kafe antzokian: Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Amets Arzallus.

17:00. Jesus Naveranen *Hitzen koba.* *Euskararen jatorria eta eraiketa.* *Hiztegi etimologikoa* liburuaren aurkezpena. Jesus Naveran, Alfontso Lizardui, Josu Goiri (Txalaparta).

18:30. Hitzaldia: *Eleiza eta zentsura.* Angel Mari Unzueta.

20:30. *Gauean argi* V. edizioa. 2005 Durangoko argizaiola omen-saria Gotzon Garateri emango diote.

22:00. Rock kontzertua Plateurena kafe antzokian: Kuraia eta Sorkun.

HILAREN 9A, OSTIRALA

Goizez. Patchwork tailerra X. Euskal Dendan (Durangoko Merkatu plaza).
Goizez. Sinadura. Urtzi Ihiza:

Euskararen jatorria aurkitua liburua. Lemuria (Artekale, 58).

10:00. Hezkuntza saileko Irale programak antolatutako hitzaldia: *Azokako 40 urteko historia.* Antton Mari Aldekoa-Otalora.

12:30. Hitzaldia: *Hegoak ebaki gabeko kantua.* Fermin Muguruza.

18:00. Hitzaldia: *Renoko liburutegia, herri baten oroitzo.* Joseba Zulaika.

19:00. Udalbide elkartearen eta Pamiela argitalearen eskutik, Jimeno Juriori omen ekitaldia eta bere lan osotuen aurkezpena (Julian Eizmendi, Roldan Jimeno, Patxi Baztarrika eta Txema Aranaz).

20:30. Berzitu txistuzale elkarteak antolatuta, *Txistua XXI. mendean* Santa Anako elizan (lan berrien estreinaldia).

20:30. Artetsu sariak San Agustin kulturunean.

22:00. Kontzertua kafe antzokian: Mikel Urdangarin.

HILAREN 10A, LARUNBATA

Goizez. Pilota tailerra X. Euskal dendan (Durangoko Merkatu plaza).

Goizez. Sinadurak. Arantza Gutierrez eta Itsaso Fernandez: *Irratsaio bat egiteko tailer praktikoa* liburua. Udako Euskal Unibertsitatea (Artekale, 80-81) eta Urtzi Ihiza: *Euskararen jatorria aurkitua* liburua. Lemuria (Artekale, 58).

11:30. Deustuko Unibertsitateak eta Durangaldeko Amankomunazgoak

argitaratuta, Nerea Mujikaren *El pasado reciente de Durango y su comarca (1960-1991)* liburuaren aurkezpena azokako aretoan.

11:30. Sinadura: Mikel Goñi pilotaria 13:00ak arte izango da X. Euskal Dendan.

12:30. Barriketaldia azokako aretoan: *Komunikabideak eta zentsuraren begia.* Jose Felix Azurmendi, Carmelo Otaegi, Izaskun Ellakuriaga (moderatzaillea).

Arratsaldez. Sinadura: Urtzi Ihiza: *Euskararen jatorria aurkitua* liburua. Lemuria (Artekale, 58).

17:00. Kuxkuxtu txarangaren *Kuxkuxtu irabazi arte* azken lanaren aurkezpena aretoan.

19:00. Durangoko Jesuiten ikastetxeak eta Gerediaga elkarteak antolatutako hitzaldia azokako aretoan: *Durangoko Jesuiten ikastetxea eta euskal kultura.* Antton Mari Aldekoa-Otalora.

20:00. Durangon Folk 2005 Kriskitin dantza taldeak antolatuta, San Agustin kulturunean. Toledoko Amanecer eta Kriskitin dantza taldeak.

22:00. Kontzertua kafe antzokian: *Lauaxeta: Ehungarrenean Hamaika.*

HILAREN 11, IGANDEA

Goizez. Paper tailerra X. Euskal Dendan (Durangoko Merkatu plaza).

Goizez. Sinadura. Urtzi Ihiza: *Euskararen jatorria aurkitua* liburua. Lemuria (Artekale, 58).

11:30. Arabako Foru Aldundiaren eskutik, Andolin Eguzkitzak eta Maitena Etxeberriak idatzitako *Hizkuntzalaritza orokorra: arazoak eta ikuspegiak* liburua eta Ignacio Carrera eta Imanol Garciak egindako *Legutiano aldeko euskera* izeneko liburuak aurkeztuko dira azokako aretoan.

12:30. Durangoko Jesuiten ikastetxeak eta Gerediaga elkarteak antolatutako hitzaldia azokako aretoan: *Euskera, Jesulagundia eta Jesulagunak.* Txema Auzmendi.

12:30. Kalejira azokan zehar. Kriskitin dantza taldeak antolatuta.

13:00. *Berria* krosaren sari banaketa kafe antzokian.

13:15. Kalejira X. Euskal Dendan. Kriskitin dantza taldeak antolatuta.

Arratsaldez. Gazta tailerra X. Euskal Dendan.

Arratsaldez. Sinadura: Urtzi Ihiza: *Euskararen jatorria aurkitua* liburua. Lemuria (Artekale, 58).

17:00. UNESCO etxearen liburu aurkezpenak. *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena eta Europako hizkuntzak.*

18:30. Nafarroa historiaren hariak liburuaren aurkezpena. Bixente Serrano Izko egilea eta Patxi Larrion historialaria.

20:00. Kontzertua kafe antzokian: Korrontzi.

*Oharra: Leku zahaturik ez duten ekitaldi guztiak azokako aretoan izango dira.

polo, Mokolo eta konpainia eta Pirritx eta Porrotx eskualdeko pailazoez egindako hainbat lan, Bonberenea Txarangaren diskoa edota 2006ko Eskola Txikien festa dela-eta argitaratu duten *Gure mundu txikitik* diskoa ere aurkituko dituzte bisitariek azoka gunean. Aipatutakoak, dena den, bi eskualde-etako uzta oparoaren fruitu gutxi batzuk besterik ez dira.

Berritasun gisa, esan behar da aurten lehendabizikoz aldizkari berezia kaleratuko duela Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak. 20.000 ale banatuko dituzte antolatzaileek azoka egunetan. «Besteak beste, azoka eta Gerediaga elkarteak jasotzen duen erreportaje bana, hainbat elkarriketa eta beste hainbat iritzi biltzen dira, guztiak ere azokaren 40. urteurrenaren haritik eta azokak gaitzat duen zentsuraren gainean», diote antolatzaileek. Azokarako argitaratu diren nobedadeak biltzen dituen katalogoa ere jarri dute abian: sarean kontsultatzeko aukera dago www.durangokoazoka.com webgunean. Bestela, 5 euro ordainduta paperezko euskarrian eskuratu ahal izango da azokan bertan.

Durangoko Azokako zuzendari Jon Irazabalek aurkezpen ekitaldian aurreratu zuenez, «zentsura gaia izango da aurtengo azokaren ardatza. Ez da orain 30 urteko kontua bakarrik, gaur ere euskarak eta euskalgintzak jazarpen egoera bizi dutelako, eta, zoritxarrez, zentsura gaur-gaurko gaia delako». Hala, gai horren gainekoak izango dira Durangoko Azokaren baitan antolatutako dituzten ekitaldi gehienak.

Azoka zenbakitan

400.000 euro baino gehiagoko aurrekontua du Gerediaga elkarteak 40. Durangoko Azoka antolatzeko. Guztira, 309 erakusmahai izango dira; 163 izango dira parte-hartzaileak; 22 ekitaldiak eta 477 erakusmahai horietan guztietan aurkitu ahal izango diren nobedadeak: zehazki, 361 liburu, 34 disko, 43 bideo eta DVD, 49 aldizkari eta bestelako 10 produktu. Bestalde, aurtengo Argizaiola saria Gotzon Garate idazleari eskainiko dio Gerediaga elkarteak.

Urteetik urtera hazten ari den azoka da Durangokoa, eta iaiz baino 12 erakusmahai gehiago egongo dira 40. azokan. Editorialen, diskoetxeen, erakundeen eta gizarte eragileen eskaintzak gune handiagoa eskatzen du urteetik urtera. Kontuak kontu, izango da batean edo bestean 41. Durangoko Azoka ere.

ESKUALDEKO PRODUKTUAK AZOKAN ▶ LIBURUAK, DISKOAK...


Urtero bezala, handia izango da aurten ere Durangoko Azokako eskaintza. Liburu, disko eta beste hainbat produktu ikusteko eta erosteko aukera izango da bihertik igandera, eta horietako batzuk Tolosaldeko eta Leitzaldeko herritarrek sortutakoak dira izan. Urtero legez, produktu horiek bildu nahi izan ditu Hitzak, Durangora joan aurretik ere gure harpidedunek eta irakurleek horien berri izan dezaten. Hona hemen azoka gunean egunotan aurkitu ahal izango diren zenbait diskoren, libururen eta bestelakoen ingurukoak:



Egilea. Juan Kruz Igerabide.
Izenburua. *Hauts bihurtu zineten.*
Argitaletxea. Alberdania.



Egileak. Juan Kruz Igerabide eta beste hainbat egile.
Izenburua. *Egizu lo.*
Argitaletxea. Aizkorri.




Egilea. Juan Kruz Igerabide.
Izenburua. *Joxe panpin jostailu saltzaile fin.*
Argitaletxea. Elkar. Xaguxar.




Egileak. Arantxa Iturbe eta beste hamazazpi idazle.
Izenburua. *Adiskide maitea.*
Argitaletxea. Txalaparta.



Egilea. Bernardo Atxaga.
Izenburua. *Lekuak.*
Argitaletxea. Pamiela.



Egilea. Arantxa Iturbe, Elena Odriozola (marraz.).
Izena. *Amona galdu zenekoa.*
Argitaletxea. Elkar. Kuku saila.



Egilea. Patxi Zabaleta.
Izenburua. *Eneko Aritzaren hilobia.*



Egilea. Luis Mari Mujika.
Izenburua. *Ipar Euskal Herriko toponimia tipia.*
Argitaletxea. Hiria.



Egilea. Angel Rekalde.
Izenburua. *La Republica del Bidasoa. Un Estado independiente, sin moscas, sin frailes y sin carabineros.*
Argitaletxea. Pamiela



Egilea. Karlos Linazasoro.
Izenburua. *Denbora aleak.*
Argitaletxea. Pamiela.



Egileak. Juan Kruz Igerabide, Joxan Ormazabal, J. M. Olaizola Txiliku, Arantxa Iturbe eta Patxi Zubizarreta.
Izena. *Gure mundu txikitik.*
Argitaletxea. Elkar.



Taldea. Bonberenea Txaranga.
Izenburua. *Bonberenea Txaranga.*
Diskoetxea. Bonberenea Ekintzak.



Taldea. Jone Bakarlarria.
Izenburua. *Jone.*
Diskoetxea. Bonberenea Ekintzak.



Taldea. Poxpolo, Mokolo ta konpainia pailazoak.
Izenburua. *Eskola ta festa.*



Taldea. Pirritx eta Porrotx.
Izenburua. *Gorka konpontzaileak.*
Argitaratzaileak. Katxiporreta eta Elkar.

TOLOSA ▶

Gizonezko tolosar bat atxilotuta ustez lapurtzeagatik

ERREDAKZIOA

36 urteko gizonezko tolosarra, A.R.A., atxilotu zuen herenegun arratsaldean Ertzaintzak Donostian, emakume bati poltsa indarrez tira eginda lapurtzea leporatuta. Ertzaintzaren iturrien arabera, emakumea San Martin kalean zegoela indarrez kendu zion poltsa gizonezko batek eta, ondoren, Kontxako ingurura alde egin zuen korrika. Han ertzain batzuek ikusi zuten; gizonezkoa korrika atera zen Urbieta kalera, eta handik gutxira harrapatu zuten, emakumearen dokumentazioa eta banku txartelak, berrogei euro eta sakeleko telefonoa soinean zituela.

BERTSOLARITZA ▶

Mendiluzeren finalerako txartela baieztatuta

ERREDAKZIOA

Bere bigarren finalerdiko saioaren emaitza ikusita garbi bazegoen ere, azken finalurrearen ondoren baieztatuta da Aitor Mendiluzek lortu duela Bertso Txapelketako finalerako txartela. Mendiluzek 1.505,5 puntu batu ditu finalurreko bi saioetan eta laugarren postua eskuratu du. Harekin batera izango dira finalean Amets Arzallus, Jon Maia, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Sustrai Colina. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio zuzenean dira finalean. Hilaren 18an izango da, BECen, Barakaldon.

ZIZURKIL ▶ KIROL ASTEBURUA

Kirol Asteburuaren balantze «positiboa» egin du Udalak

Oso gustura dira Udala eta kirolariak ostiraleko omenaldia dela eta; IX. Gau Krosean partaidetza handia izan zen

IMANOL GARCIA

Igandean eman zioten amaiera Zizurkilgo Kirol Asteburuari, pilota txapelketaren finalekin. Balantze «positiboa» egin du Aitor Lopez Kirol batzordeburuak. «Oso gustura gaude kirolariei emandako omenaldiarekin, eta baita kirolariak beraiek ere jaso duten errekonozimendua ere. Datorren urtean berriz ere egitea pentsatzen dugun», adierazi dio Lopezek HITZARI.

Beste ekitaldi nagusi bat IX. Gau Krosa izan zen. 160 lagunek hartu zuten parte, azken urteetako kopururik handiena. «Oso giro ona izan zen», azaldu du Lopezek. Arrakasta izan zuten ere ostegunean antolatu-



Korrikalariak, Gau Krosari hasiera noiz emango zioten zain. HITZA

tako hitzalkdiak, Juanito Oiarzabalekin eta Juan Vallejorekin; 40 lagun inguru bildu ziren. Haurrek ere beren tartea

izan zuten larunbatean: hainbat kirol ezberdinetan aritzeko aukera izan zuten bai Zizurkil Goian bai Behean.

ASTEASU ▶ TXIRRINDULARITZA

Nazioarteko txirrindulariak lehian Yusen eta Secoren aurka VII. Ziklo-Krosean

23 urte azpikoen eta elitekoen probari 12:30ean emango diote hasiera

ERREDAKZIOA

Asteasuko VII. Ziklo-Krosa ez da ohi den bezala Errege Egunean izango, gaur baizik. Ohiko datak Herrialdeetako txapelketekin bat egiten zuelako aurreratu dute Aitzondo T.E. antolatzailerek nazioarteko proba.

Ohitura mantendu dute, baina, txirrindularien mailarekin. David Seco eta Unai Yus euskaldunekin batera, Isaac Suarez espainiarra, Laurent Martin eta Cedric Duceau frantziarrak, eta Kenny Geluykens, David Meys, Arne Daelmans eta David Willemsens belgikarrak

ariko dira. Azken hau nazioarteko probetan oso maila ona erakusten ari da, eta Luxemburgokoa irabazi du.

Kadete mailakoek 10:30ean ekingo diote probari; juniorrek 11:00etan eta 23 urte azpikoak eta elite mailakoak 12:30ean hasiko dira.

TOLOSA ▶

Arruabarrenak Lehen Mailan jokatzeko aukera

Mikel Arruabarrena tolosarrak aukera izan dezake Lehen Mailan jokatzeko. Egun Osasunaren bigarren taldean ari da jokatzeko eta bere maila ona erakusten ari da, denboraldian zortzi gol lortuz. Javier Agirre Osasunako entrenatzaileak atzo egindako adierazpenetan tolosarraren izena aipatu zuen Webo eta Moha jokalariek ordezkatzeko, hauek urtarrilean Afrikako Kopan lehiatu behar baitute beren selekzioekin.

TOLOSA ▶

Inauterietan txosna jarri behar dutenen bilera

Datorren asteartean, hilak 13, 19:00etan, Inauterietan txosna jarri behar dutenen bilera egingo da. Txosna jartzeko asmoa dutenei deialdia egin zaie bilerara auzalderako.

TOLOSA ▶

Zine-klubaren saioa bihar Kultur Etxean

Tolosako zine-klubaren hurrengo saioa bihar izango da, 21:30ean, Kultur Etxean. Francois Dupeyronen *El pabellon de los oficiales* emanango dute.

ANOETA ▶

Dantza-sokan izena emateko aukera Itzuliz

Berrito antolatu dute dantza-soka Anoetan. Izena emateko Itzuliz tabernara jo behar da, hilaren 14a baino lehen.

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

iragarki laburrak ▶

LANA

Etxeko lanak. Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Deitu 677 31 74 01 telefono zenbakira.

SALGAI

Autoa. Renault Space. Motorra DCI 2.200. 2001ekoa. Deitu 649 89 98 03 telefono zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Eskualdeko merkatariak kanpainak egiten dituzte herritarrek erosketak herritik atera gabe egin ditzaten. Non duzu ohitura erosketak egiteko? Eman ezazu zure aukeraren berri eta baita zure iritzia ere Hitzaren webgunean. Parte hartu ere beste inkestetan.

GUTUN@K ▶

Anoetako Agenda 21 dela eta

2005eko azaroaren 29ko herri batzarrean Agenda 21 dela-eta Anoetako Udalarri proiektu honen helburu, parte-hartze eta diagnostikoaren inguruan gure salaketa eta ikuspuntu kritikoak azaldu genizkion.

Helburuen inguruan Udalak esan du: «Guretzat eta gure ondoren datozenentzat herri txukun eta bizi bat du helburu». Zertaz ari den? Zer esan nahi du herri txukun eta bizi dioenean? Mesedez, argi eta zehatz hitz egin behar da.

Ildo horretan, Alborg-eko gutunaren argi-ilunak ere ai-

patu nahi ditugu. Agiri horretan ulertzen den garapen iraunkorraren kontzeptuarekin, ingurumena era iraunkorrean erabiltzeak esan nahi eta eskatzen duenarekin bat egiten dugu. Kritikoak gara, ordea, garapen iraunkorraren bila tokian tokiko estrategiarekin. Baina, azken honetaz, Udalak ekintza plana onartzen duenean hitz egingo dugu.

Parte-hartzearen inguruan: Agenda 21 proiektuan, Udalak, herritarren parte-hartzea garrantzi handikoa dela dio eta ezinbestekotzat jotzen du. Berak behin eta berriz bazterten dituen bitartean. Udalak dio: «Orain duzu aukera zure ideiak ezagutzera emateko eta etorkizuneko herria osatzen parte hartzeko. Anoetako etorkizu-

nen parte har ezazu!». Bada, hemen ari gara, beste behin, Anoetarrok Auzolanean herri plataformaren bazterketa gogor salatu asmoz.

Udala ez dago demokratikoki osatua. Udaltzak ez ditu herritar guztiak ordezkatzen. Hain zuzen ere, 409 herritarrek aukeratu zituzten Anoetarrok Auzolanean herri plataformako lau zinegotzien aulkiak, PNV-EAko Nieves Alarcosek, Jesus Mari Arsuagak eta Mari Carmen Egurzak lapurtu zituzten. Beraiei exigitzen diegu, benetako parte-hartzea bermatzeko, dimititu dezatela. Horrelako proiektuekin, Anoetako Udalak benetako izaera antidemokratikoa estali nahi du.

Bestalde, Udala AHT Gelditu! Elkarlana taldea ere bazterten

ari da. Azken adibidea larria da: pasa den uztailen ia 300 sinaduren babesarekin aurkeztu genuen mozioa ez du eztabaidatu ere egin nahi.

Gainera, Agenda 21 proiektuaren metodologian, herritarren parte-hartzea oso mugatua eta murriztailea da. Ideiak emateko eta lan egiteko nahi dira herritarrek. Baina, erabakiak, horiek bai, udaltzar baztertzailak hartuko ditu.

Diagnostikoaren inguruan: diagnostikoak egoera deskribatu behar du. Egoera ez da argizki fijo edo fotograma bat. Ekonomia, gizartea eta ingurumen arloetan ematen ari diren joerak prozesuak seinaltatu behar ditu, filma argi ikusi behar dugu. Oso akats eta gabezi larriak somatu genituen diagno-

sian. Honek luzerako eman lezake, beraz, aurrerago landuko dugu sakonago.

Egoera honetan ere, herriarentzat ona izango delakoan, gure borondatea azaldu genuen diagnosiari gure ekarpenak egiteko, era gardenean eta manipulaziorik gabe ematekotan.

Nieves Alarcos, Jesus Mari Arsuaga eta Mari Carmen Egurza dimititu!

Bazterketarik ez!
Abiadura Handiko Trenik ez!

IGOR URKOLA, MIKEL LARRION, MIKEL URKOLA ETA MANU ODRIOLAZA ▶ AHT GELDITU! ELKARLANA, GAZTE ASANBLADA ETA ANOETARROK AUZOALEAN HERRI PLATAFORMAKO KIDEEN IZENEAN (ANOETA)

ALEGIA ▶ GAZTETXEA

Gaztetxea, adin nagusira iritsita, indartsu eta bizirik

Ekintza mordo eta oparoetan parte hartzeko aukera izango da, hilabete osoz, Gaztetxearen 18. urteurrenean

NEREA URBIBU

Dagoeneko 18 urte pasatu dira Alegiako gazteek Gaztetxeaz gozaten dutenetik. Hori ospatzeko, hilabete oso bat hainbat ekintzekin antolatuta dute; musika, kontzertuak, mus txapelketeta, eta abar luze bat. Hori guztia hilaren 7tik urtarrilaren 8a arte, ia egunero ekintzaren bat eskainiz.

Esan bezala, bihar hasiko da egitaraua, «zahagiardoa eta zerbeza periarekin». Ostegunean, 21:00etan, *Los espigadores y la espigadora* Frantziako dokumentala ikusteko aukera izango da, Agnes Vardaren zu-

zendaritzapean. Osteguna lasaia izango da, beraz. Baina, mahai-jolasetarako tenorea ere izanen da, eta baita «kirol alternatiboetarako» ere; izan ere, dardo txapelketa jokatu dute, ostiralean, 22:00etan.

Larunbateko eguna jaia dela kontuan izanik, alegiarrek egun osoa ekintzaz bete dute: hasiera 12:00etan izango da, Tokarekin; bermuta eta kupela zabaltzea segidan; eta bazkal-tzeko, 14:30ean, babarrunak. Bazkalostea gehiago girotzeko Gartxot eta Edorta naparrak arituko dira gitarrak lagunduta. Ez da denbora asko itxaron beharko jarraian Mulanbore-

kin okupazio eta gazteteen al-deko kalejira egiteko, 18:30ean hasiko baita.

Gauari hasiera emanez, 21:00etan, zahagiardoa izango da, eta berriro ere musikaz gozatzeko aukera, 22:30ean, *Sexty Sexers*, *The Solanos* eta *DJ Pirataren* eskutik. Larunbat oparora, hortaz, Alegian. Eta igandean, 19:00etan, *Oh my god* taldeak *Emakumea Harrian* antzerkia eskainiko du. Asteazkena arte etenaldia egin eta egun horretan *La ventana de enfrente* izango da ikusgai, 21:30ean, zine-klubean.

Urtarrilaren 8a arte, eongo da zer eginik Gaztetearen.

AMEZKETA ▶

Pilotazaleak pozik egoteko arrazoiekin

Gipuzkoako Txapelketako final garrantzitsuenak Larunbarri pilotalekuan izango dira, Amezketan, alegia. Hilaren 23an kadeteen eta gazte- en mailako finalak izendatuta badaude ere, 16an nagusien mailako finalak ere izango dira. Zazpi-Iturriko Baezek eta Mintegik ezin izango dute finalean izan, joan den ostiralean jokatuak partidaren Aurrera-Saiazen kontra galdu egin baitzuten, 22 eta 16ko emaitzarekin.

ORENDAIN ▶ ANTZERKIA

Barre egiteko bertso-antzerkia

Etzi, hilaren 8a, Kultura Batzordeak antolatuta, udaletxeko areto nagusian *Inaxitoren ametsak* bertso-antzerkia ikusteko aukera izango da, Trikuharri taldeak eskainita. Arratsaldean, 17:00etan izango da, barre egiteko. Batez ere 5-12 urte bitarteko haurrentzako da proposa. Inaxito delakoak geografia azterketa dauka hurrengo goizean, eta ametsean, igel bat lagun, abentura asko biziko ditu. Ondoren, Gabonetako kantu entsegua egingo da, eta hori amaituta, afari-merienda antolatuta dute elkartean. Baina, horretarako, izena eman beharra da, udaletxean, ahalik eta azkarran.

ALEGIA ▶

Bertsolari Txapelketarako sarrerak jasotzeko

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera joateko izena eman zutenek txartelak jasotzeko aukera izango dute biharko egunetik aurrera. Hilaren 9rako sarrera guztiak jasota izatea komenigarria dela adierazi dute sustatzaileek. Txartelak jasotzeko aurretik ordaindu beharko da. Hilaren 18an, igandea, BE-Cen jokatu den finalera joateko Alegiatik bertatik aterako da autobusa, 08:30ean, zubitik.

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ALKIZA ▶ HISTORIA

Zenbat erreal ikatz karga batek?



'Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa (1348-1950)' liburua argitaratu zuen Pello Joxe Aranburu alkizarrak; garai horiek ulertzeko sarreran emandako azalpenak islatzen ditugu ondoren

PELLO JOXE ARANBURU

Nire jaioterriaren historia gaurko ikuspegitik ulertu ahal izateak ahalegin handi bat eskatzen digu. Gipuzkoako herriek historian zehar, hamar edo zazpi mendeetan, aldaketa itzela egin bide dute, bertako ohiturak ulerkaitzak, errealitatea neurtzeko unitateak ezezagunak eta bizimaila erruz igoz. Bai Gipuzkoaren bai Alkizaren errealitate historikoa geureganatzeko, nahitanahiez ikuspegi malguz begiak ireki behar dizkiogu eta begirune sakratua gorde.

Orain dela bi mila urte Alkizan artzainak bizi ziren, ez zeoan baserririk, agian bai nekazal asentamenturik, Alkizako eremuetan ez, baina oso gertuan aurkitu baitute. Alkizako lehen baserriak beren etxe, soro, baratze, belaze eta bakar jabetzarekin noizkoak ote dira? Noizkoa ote Santiago izeneko ospitalea? Erromatarren eraginik iritsi ote zen gure herriraino? 1527-1623 urteetan, zergatik hautatu zuten Alkiza-

EUSKAL HERRIKO NEURRI ZAHARRAK ▶

Alkizan, 1896an, sistema metriko berria inposatu zen arte, Euskal Herriko neurri zaharrak erabiltzen ziren.

PISU NEURRIAK

Ontza. 28,7 gramo.

Libra. Hamazazpi ontza, 488 gramo, gaur egun kilo erdia.

Erraldea. Hamar libra, gaur egun bost kilo.

Arroa. Hogeita bost libra, 12,20 kilo, gaur egun 12 kilo eta erdi.

Zama. Pisu neurri zaharra, hiru kintal zahar.

ko erretorea Gipuzkoako Artzi-prestazgo Nagusiko idazkari? Alkizak 1527an zuen pisu historikoa eta egun duena ez ziren eta ez dira neurri berekoak, herri eta parrokien historia aldakorra baita. Gaur inork ez dugu ezagutzen Alkizako burdinola zaharra, Egurrola, baina mende batean burdina bertan urtu ondoren, uholdeek sumtsitu zutelako 1615ean desagertu

Karga. Sei kintal sagardogintzan, berrogeita hamarna kiloko sei zakukada, 300 kilo. Ardo-karga batek 125 kilo edo hamar arroa.

Gurdia. Zortzi kintal sagardogintzan, berrogeita hamarna kiloko zortzi zakukada sagarrek osatzen dute gurdi sagarra edota 400 kilo.

BESTE ZENBAIT NEURRI
Pitxar edo azunbrea. Bi litro.
Lakaria. Bi litro eta erdi, ale-neurria.

Gaitzerua. Bederatzi litro eta laurden, ale-neurria.

Anega. Hamabi lakari, 55,5 litro, ale-neurria.

Ontza edo pulgada. 23,2 milimetro.

Oina. Hamabi ontza, 278 mm.

Bara. 835 mm.

Legoa. 20.000 oin edo 5.500 metro, bide neurria.

HEADURA-NEURRIA

Estadoa. Bi metro karratuko horma.

Postura. 34-36 metro karratuko area.

Aritzetegi-Loidi-Zelatum edota Iturriotz lotzen zituen galtzada. Bai Azpeitiarekin Zelatumdik barna, bai Tolosarekin Hernialde herrian zehar bide horretatik Alkizak posta-zerbitzua eduki zuen gaurko zerbitzu publikoa sortu aurretik. Erruz aldatu dira errepideak, ohiturak eta bizimodua.

Errealitate historikoa ulertzeko beste zailtasun batzuetara

iraganez, diru-unitate ezberdinak erabili izan dira Alkizan historian zehar eta horrek ulermen-arazoak berekin ditu. Halaber, gauza bera gertatu izan da errealitateari buruzko hainbat alorretako unitate zaharrak adieraztean, gaurko unitateekiko baliokidetzak edo egokidetzak ezagutzen ez bada, hots, informazio ulerkaitza bilakatzeko da. Arazoa, ordea, areagotu egiten da mendetan bizimaila erruz aldatzean. Bizimailaren erreferentzia minimo batzuk ere lagungarri izango direlakoan, zenbait apunte solte aurre-ratuko ditut.

Aipatu urteetan honako diru-unitateak nagusiki erabili da, beilonezko erreala, zeinek 34 marabedi eta lau errealek pezeta bat balio zuten. Beste honako hauek ere agertuko dira nire lan honetan: dukatak 11 erreal, eskudoak 10 erreal eta urrezko ontzak 320 erreal balio zuten. Laurogei erreal balioko dobloiak agertzea arrosa da, oso zaharra baita. Alkizan, 1896an, sistema metriko berria inposatu zen arte, Eus-

ALDAKETA

Aldaketa itzela izan da: ohiturak ulerkaitzak, errealtatea neurtzeko unitatea ezberdinak eta bizimaila erruz igo da

DIRUA

Diru-unitate ezberdinak erabili izan dira Alkizan historian zehar eta horrek ulermen arazoak berekin ditu

kal Herriko neurri zaharrak erabiltzen ziren.

Alkizako bizimaila erruz datu zen, 1569-1950 urteetan. Bilakaera horren ikuspegi historikoaz jabetzeko, zenbait datu adieraziko ditut. Datu erreferentzial objektiboak ematen ahaleginduko naiz.

Alkizako erretoreak, 1569. urtean, 24 dukat jasotzen zituen, Villabonako benefiziariak, berriz, 16 dukat 1590. urtean. Urte berean, meza isilaren diru-saria 2 errealetara igo zen. Alkizako erretoreak, 1620an, Iturriotzen meza bat emateagatik 4 erreale jaso zituen bezala, 1638an, herriko meza isilak 3na erreale, 1722an, 6na eta, 1736-1776 urteetan, 11na errealetara igo ziren.

Jarraian, 1600-1620 urteetako datu zehatzak emango ditut: itziaik idi pare batekin egun osoan 5 erreale, bi basozainek 3 errealeko alokairua, hiru gizonek bideak egiten 8 erreale eta notarioak eguneko lanagatik beste hainbat, hots, 8 erreale jasotzen zituzten. Alkizako elizako paretak eraikitzean, estadao edo 4.212 dukat kostatu ziren. Mila teilek 44 erreale, haritz zuhaitz batek 7 nahiz 22 erreale, kutxa bateko sarraila eta giltzak 7 erreale, Egurrolako zurezko zubia egiteagatik 25 erreale, ikatz karga bat erreale erdia, litro ardoia 1 erreale bat, zurezko botana berria eraikitzea 23 dukat, errotaria 8-22 erreale eta Ostatuko otordua 3 erreale ordaintzen ziren.

XVII. mendeko beste hiru datu global gehituko ditut: Egurrola edo Olaa errotak, 1630-1710 urteetan, Kontzejuari batzate beste 45-63 dukateko errenta ematen zion; Igaran errotak, berriz, 11-41 dukat; Alkizako Kontzejuak, 1599-1621 urteetan, urteko 1.266 erreale gastatu eta 1.614 erreale bildu ohi zituen.

Alkizako ostalariek errentan kopuru hauek ordaindu zituzten: 1733an 26 dukat, 1743an 14 dukat, 1751n 13 dukat, 1768an 25 dukat, 1773an 28 dukat, 1782an 29 dukat,



Alkizako herriaren argazki zaharra; garai hartan beilonezko-erreala zen diru-unitate nagusia. HITZA



Errotek gaur egun ez dute antzina zuten garrantzia; irudian, Alkizan zegoenetako bat. HITZA

BESTE HAINBAT DATU >

Liburuko sarreraren azken zatian, urte askotako zerrenda luze bat, 1721etik 1880era bitartean, ematen du Pello Joxe Aranburu alkizarrak bizimoduaren gorakada adierazteko.

1721. Sarobe baserrian Joan Irazusta erretoreak 19 ardi errentan jarri zituen buruko eta urteko errealean.

1752. Intxaurrendiagako harrizko zubia eraikitzea 192 erreale eta Kukutegikoa 1.753 erreale ordaindu ziren. 1753an, anega bat garik 6 erreale balio zuen.

1754. Alkizako Ostatuko eguneko menuen prezioak

hauek ziren: otordua 3 erreale, oilaskoak 2 erreale eta kapoiak 4 erreale. Etxe berean garraioko ganaduen janariagatik lakari bat arto zaiarekin nahasturik, biak erdi bana, eta lastoa 2 erreale kobra zezakeen.

1773. Garroko harrizko zubia eraikitzea 863 erreale kostatu zen.

1779. Obrak ikuskatzeagatik, esaterako, zubia 8 erreale.

1788. Alkizako notario eta maisuak, pertsoniak berak urtean 1.375 errealeko nomina zeukan.

1800. Idi parearen lanagatik itzaiari eguneko 15 erreale, ofizialari 7 erreale eta peoiari 5 erreale ordaintzen zitzaion.

1801. Ardiak buruko 55 erreale balio zuen.

1800eko hamarkada.

Gurdika sutegurak 16 erreale, artoa bat ardok 20 erreale, litro bat koipek 5 erreale, alkandorak 58 erreale, zapata pareak 22 erreale, kilo bat garagarrek erreala, gurdikada lastok 20 erreale balio zuten eta neskame edo morroiak urteko 300 erreale jasotzen zuten bere zerbitzuagatik.

1822. Maisuak 989 erreale irabazten zuten Alkizan.

1845. Anega bat artok 40 erreale balio zuen.

1880. Sendagileari urteko 5.500 errealeko nomina ipini zioten.

1794an 37 dukat, 1802an 71 dukat, 1809an 100 dukat, 1842an 48 dukat, 1890ean 50 pezeta, 1898an 100 pezeta eta 1943an 450 pezeta.

Urte berdintsuetan Olaako errotariak errenta bikainagoak eman zitzioten Udalari: 1733an 55 dukat, 1743an 50 dukat, 1751n 50 dukat, 1768an 133 dukat, 1773an 70 dukat, 1782an 78 dukat, 1794an 121 dukat, 1802an 226 dukat eta 1809an 120 dukat.

Orain etxeen salmenta eta zenbait obra garrantzi handiak buruzko datuak emango ditut, ordena kronologikoa kontuan izanik. 1731. urtean, Alkizako erretaula nagusia eraiki eta 70.000 erreale ordaindu zitzaion Irazustari. Urte berean, sakristia aldeko alboko erretaula 17.000 erreale balio zuena doan utzi zion jaioterriari aipatu eskultoreak. 1743an, Bergarako Santa Marina parrokiako erretaula nagusiagatik 90.000 erreale jaso zituen Irazustak.

1767an, Otsamendi Garaikoa etxea 3.300 errealean, 1768an, Etxabeguren baserria lur eta guzti 92.408 errealean, 1771n, Mariategi etxea eta baratzea 2.200 errealean, 1798an, Katalandegi baserriaren erdia lur eta guzti 19.700 errealean saldu ziren.

1800ean, erretoretxe berria eraikitzea 107.000 erreale kostatu zen. 1840an, dorreko erloju berria 2.560 erreale eta, 1928an, organo berria 20.000 pezeta ordaindu ziren. 1930 aldera, berriz, Lete 28.000, Mariategi 22.000, Lizarzelai 21.500, Katalandegi 20.000 eta Garmendia Garaikoa baserria 16.500 pezeta ordaindu zituzten maizterrek.

Bizimoduaren aldaketa edo igoera adierazteko, Alkizan saldu edo erosi ziren animalia eta zenbait gauza edo objektuen prezioak gehituko ditut. 1758. urtean, 19 hilabeteko idi pare 138 erreale eta 1771n, beste idi pare bat 418 erreale ordaindu baziren, 1784. urtean, uztarrirako behi pare 80 erreale eta idi pare 1.400 erreale ordaintzera iritsi ziren. Ikatz karga bat Alkizan, 1730-1760 urteetan batzate beste 2-3 erreale, 1760-1790 urteetan 5-6 erreale, 1790-1800 urteetan 10 erreale eta 1800-1810 urteetan 6 erreale ordaindu zen. Era berean, 1638. urtean meza isil bat ateratzegatik 2-3 erreale, 1776. urtean, 6 erreale eta 1805. urtean, 5 erreale ematen zitzaion apai-zei.

Datu solteak izanik, baina, oro har bizimaila igotzearen seinale dira. Lehen diruak balio handiagoa zuen, gaurkoratu ahala bere berezko balioa galdutako egin du.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Zahagiardoa eta zerbeza feria. Bihar, Gaztetxearen 18. urteurrenoko egitarauari hasiera emateko.
Asteasu. Nazioarteko Ziklo-Kros Txapelketa, 10:30etik aurrera.
Tolosa. Harizpe jubilatutako elkarteak Gabonetako Loteria eta saskietarako zenbakiak salgai jarri ditu bazkideentzat astelehen, asteazken eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.
Villabona. Oinkari dantzari taldearen 30. urtemugan, taldean aritutako guztien bazkaria izango da hilaren 18an Sarasola sagardotegian. Ondoren, erromeria. Izen-ematea, 660 13 93 80an edo Ikastolako ganbaran astearte eta ostegun arratsaldeetan.

ZINEMA

Tolosa. Francois Dupeyronen *El pabellon de los oficiales* filma. Bihar, 21:30ean, Kultur Etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* ohiko sarrera eman ondoren, Joxe Landarekin eguraldiaz hitz egin, azken orduko oharrak eman eta agenda errepasatu ondoren... Durangoko Azokaren inguruan saio berezia: hasteko, elkarrizketa Jon Irazabal Durangoko Azokako zuzendariari. Aurretik, Argizaiola saria jasotzen duen Gotzon Garateri ere elkarrizketa. Horrekin batera, argitalebe nagusiek liburuen arloan aurtengo Durangoko Azokan aurkeztuko dituzten nobedade nagusiak: Elkar, Erein, Txalaparta, Alberdania eta Susa argitalebeko kideak izango dira Txolarrekoekin. Idazleak ere elkarrizketatuko dituzte: Harkaitz Cano, Juan Kruz Igerbide adunarra eta Hasier Ebeberria. Musika arloan izango diren berrikuntzak ere jasoko dituzte: Elkar, Oihuka, Metak eta Gaztelupeko Hotsak diskoetako kideak euren nobedadeak aurkeztuko dituzte, eta, besteak beste, Mikel Laboaren azkeneko diskotik bildutako kantuak izango dira izungai.
21:00. Irulegi Irratian ekizitako *Gure Arbasoak* saioa.
22:00. *Street noise* musika saioa.

▶ **HITZA** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Euskararen etorkizuna

VILLABONA ▶ Jesusen Bihotza Ikastolako ikasleek Euskararen Egunaren inguruko ekitaldiak egin zituzten atzo: abestiak, bertsoak, antzezlanak...



Puxikekin jolasean abesti bat antzeztu zuen Txermineko ikasle talde batek. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Atzoko eguna aukeratu zuten Villabonako Jesusen Bihotza Ikastolakoek Euskararen Egunaren ekitaldiak antolatzeke. Bai Txerminen bai Zentroan, ikasleek hainbat ahozko adierazpen egin zituzten: abestiak, antzezlan txikiak, jolasak, olerkiak... Txerminen gela bakoitzak bere emanaldia egin ondoren *Behin betiko* kantu ezaguna abestu zuten. Zentroko irakasleekin solasean aritu zen HITZA ikasgeletan euskarak zuen erabilerraz: «Gero eta helduago gero eta gaztelera gehiago erabiltzen dute». «Bromak egiteko, ligatzeko... bizitasunarekin zerkusia duten gaietan askotan gaztelarako joera hartzen dute. Gure zeregina izan behar du euskarazko tresnak ematea». Badago asko egiteko, beraz, euskarak normalizazioa lortzeko. Izan ere, gaurko ikasleak dira euskararen etorkizuna bermatuko dutenak.



Txermineko zenbait ikasle *Behin betiko* kantua abesten. I. GARCIA



Zentroko ikasle taldeak egindako antzezlanetako bat. I. GARCIA

AGURRAK ▶

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaltxeko bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!